

Gazteak eta euskararen erabilera: egin gabeko galderak

Jóvenes y uso del euskera: las preguntas que no se han hecho

Les jeunes et l'usage du basque : questions qui n'ont pas été posées

Young people and the use of Basque: unasked questions

HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone M.
AFIT ikerketa-taldea (UPV/EHU)

ALTUNA RAMÍREZ, Jaime
AFIT ikerketa-taldea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2020-12-14
Noiz onartua: 2021-03-09

Euskera. 2020, 65, 2. 445-479. Bilbo
ISSN 0210-1564

Gazteen euskararen erabileraren gaia ez da berria. Ikerketak egin dira, esperientziak eta egitasmoak abiatu dira, baina zalantza asko dago emaitzen inguruan. Galdera eta kezka ugari sortzen duen auzia da oraindik ere. Artikulu honetan, gaiari buruzko hausnarketa kritikoa egin dugu, azken bost urteotan gazteekin egin ditugun ikerketetan pilatutako esperientzian oinarrituz. Batez ere, *D ereduko kirola* egitasmoan parte hartu duten kirolari gazteek esan eta erakutsi digutena aintzat hartuta, galderak berrikusi, ikerketa-moduak birpentsatu eta gazte-kulturekin lotutako praktika, subjektibotasun eta ideologiei garrantzia ematearen beharra azpimarratu dugu.

Gako-hitzak: gazteak, euskararen erabilera, *D ereduko kirola*, hizkuntza-praktikak, hizkuntza-ideologiak.

El uso del euskera entre la juventud no es un tema novedoso. Se han realizado investigaciones, se han puesto en marcha experiencias y proyectos, pero los resultados son dudosos. Es una cuestión que hoy en día también genera numerosas dudas y preguntas. En este artículo haremos una reflexión crítica sobre la cuestión, basándonos en la experiencia acumulada tras cinco años de investigación con jóvenes. Sobre todo, teniendo en cuenta lo que nos han dicho y mostrado los y las jóvenes deportistas, creemos que hay que replantear preguntas y modos de investigar. Además queremos subrayar la necesidad de dar la debida importancia a la prácticas, la subjetividad y las ideologías relacionadas con la culturas juveniles.

Palabras clave: jóvenes, uso del euskera, *D ereduko kirola*, prácticas lingüísticas, ideologías lingüísticas.

La question de l'usage du basque par les jeunes n'est pas un thème nouveau. Des études ont été menées, des expériences et des projets ont été lancés, mais des doutes persistent à propos de leurs résultats. Il s'agit d'un sujet qui aujourd'hui suscite une multitude de questions et d'inquiétudes. Nous mènerons dans cet article une réflexion critique sur ce sujet, en nous basant sur cinq années de recherche menées auprès des jeunes. Compte tenu surtout de ce que nous ont dit et montré les jeunes sportifs, nous pensons qu'il est nécessaire de reformuler les questions et de revoir les méthodes de recherche. Il faudrait souligner la nécessité de donner l'importance qu'elles méritent aux pratiques, à la subjectivité et aux idéologies liées aux cultures des jeunes.

Mots-clés : jeunes, usage du basque, *D ereduko kirola*, pratiques linguistiques, idéologies linguistiques.

The issue of young people's use of Basque is not new. Research has been carried out, experiments and projects have been launched, but there are many doubts about the results. It is still an issue that raises many questions and concerns. In this article we have carried out

a critical reflection on the subject based on the experience we have accumulated in our research with young people over the last five years. In particular, in light of what young athletes participating in the Model D sports project have said and shown, we will need to review those questions, rethink research methods, and emphasize the importance of practices, subjectivity, and ideologies related to youth cultures.

Keywords: young people, the use of Basque, Sport in D model, language practices, language ideologies.

1. Gazteen¹ erabileraren auzia aztergai

Argitaratu berri den artikulu batean, Eileen Goughlanek (2021) Irlandan hizkuntza-berreskurapen politikek hitzun gazteengan izandako eragina eta ondorioak ikertzeko deia egin du. Goughlanen zenbait ideia gurerara ekar dezakegula uste dugu, esaterako, Irlandan bezala, euskararen biziberritze prozesuan ere hezkuntza-sistema erdigunean egon izanak ondorio zehatz batzuk izan dituela. Eskoletan burututako lanaren isla dira euskararen eza-gutzaren datu baikorrak, baina, era berean, euskararen erabileraren datuek hezkuntza-eremu horretatik kanpoko hizkuntza-plangintzen hutsuneen berri ematen digute. VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritzaren 2019), 2016an EAEko 16-24 urte bitarteko gazteen % 71,4k euskara bereganatua zuten. Horietatik % 29,5ek dio euskara beste hizkuntzak baino gehiago erabiltzen duela. Bestalde, eremu publikoan egiten den Kale Neurketa ikerketak² utzitako datuak ere adierazgarriak dira. Ikerketa horren arabera, Euskal Herriko gazteen (15-24 urte bitartekoak) kale-erabilera % 12,3 da, lurraldeen arteko aldeak nabarmenak izanik (Soziolinguistika Klusterra 2017).³

¹ Gaztaro, nerabezaro eta haurtzaro kategorien barruan sartzen diren subjektuak zehaztea ez da dirudien bezain erraza. Ez dago adostasun orokorrik aro horiek mugatzen dituzten adinen inguruan. Osasunaren Munduko Erakundeak, adibidez, nerabezaroa 10etik 19 urtera arteko garaia dela dio, eta gaztaroa, 15etik 24 urtera arteko aroa dela. Definizio horren baitan, beraz, kontraesan ageri zaigu, 15 eta 19 urteko pertsonak nerabe eta gazte gisa hartu baitaitezke aldi berean. Artikulu honetan gazte kategoria oso modu zabalean erabili dugu guk, nerabezaroa gaztaroak hartzen duen prozesuan txertatua dagoela iruditzen zaigulako. Izan ere, azken urteotan egin ditugun ikerketetako protagonistak 12tik 18 urtera bitartekoak dira, eta artikuluan gehien aipatzen dugun *D eredu*ko kirola egitasmokoek 12 eta 15 urte dituzte.

² Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa bost urterik behin egiten den ikerketa da. Hitzunen kale-erabilera du aztergai, hau da, ikerketak Euskal Herriko kaleetan entzuten den hizkuntza-erabilera behatzen du. Datu-bilketa behaketa bidez egiten da, neurtzaileek kalean dabil-tzan hiztunei ezertxo ere galdetu gabe eta entzuten dutena jasoz. Modu horretan, hiztunok ez dakite behatuak izaten ari direnik, eta neurtzaileek hiztunen berezko joera jasotzen dute. Estreinakoz 1989an egin zen neurketa hori eta geroztik, lau-bost urtean behin errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta azkena 2016an. 2016ko VII. Neurketan, Euskal Herri osoko 144 udalerrri neurtu ziren, eta 187.635 elkarrizketaren eta 515.260 solaskideren informazioa bildu zen.

³ Gipuzkoan, esate baterako, gazteen kale-erabilera % 34,1 da (Soziolinguistika Klusterra 2017).

Datu orokor horiek osatzen dituzten beste hainbat ikerketaren emaitzek ere ondorio argigarriak erakusten dizkigute. Batetik, esparru akademikoarekin lotutako datuetan euskararen indarberritze zantzuak ageri dira (2020-2021 ikasturtean, kasurako, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan ikasle berrien % 53,9 euskarazko taldeetan matrikulatu dira), eta aisialdiarekin lotutako zenbait esparrutan ere antzera gertatu da (euskarazko literatura eta musikaren kontsumoak⁴ nabarmen gora egin du azken hamarkadan). Baina, ez da gauza bera jazo puri-purian dauden beste eremu batzuetan: ikus-entzunezkoak eta bideo-jokoak,⁵ adibidez.

Gazteen euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean sumatutako arrakalak hainbat zalantza eta galdera eragin ditu azken hamarkadotan eta, gehiegitan, euren jokaeren gaineko epai zorrotzak nagusitzen dira (Hernández eta Altuna 2020). Auzi horretan bestelako informazioa jasotzeko asmoz, azkenengo bost urteotan hainbat ikerketa-lan egin dugu gazteekin. Ikerketa horietan gazteekin hitz egiteko, egoteko eta euren hizkuntza-praktikak behatzeko aukera izan dugu (Altuna 2015; Hernández eta Altuna 2016; Altuna 2017; Hernández, Altuna eta Beitia 2018; Hernández eta Altuna 2020; Hernández 2020). Gazteen aisialdiaren zenbait eremu aztertu dugu, direla Kuadrillategi egitasmoarekin lotutako ekimenak (Hernández eta Altuna, 2016), dela kirol federatua (Hernández, Altuna eta Beitia, 2018, Hernández eta Altuna, 2020) edota lonja-, lagunarte-, kirol- edo musika-taldeak (Hernández, 2020). Kasu guztietan metodologia kualitatiboa erabili dugu eta teknika ezberdinen bidez (behaketak, banakako elkarrizketak, hiruko elkarrizketak eta talde-dinamiken bidezko talde-hausnarketak) gazteen diskurtsoak, hizkuntza-praktikak eta bizipenak jaso ditugu.

Ikerketa horiek beta eman digute, gazteek ere «ez erabiltzearen» kezka edo auzia barneratu dutela ohartzeko. Gazteen gaitza dela diote: bere ki-

⁴ Besteak beste, ikusi 2012an, Kulturaren Euskal Behatokiak egindako ikerketa honen emaitzak: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_gazt_kultur_kontsumo/eu_def/adjuntos/gazteen_kultura_kontsumoa_2012.pdf

⁵ Euskararen eta bideo jokoen arteko harremani buruz erreportajea garatu du Lander Muñagorrik Berria egunkarian. Hona hemen eskuragarri: <https://www.berria.eus/paperekoa/2663/014/001/2020-11-22/euskara-bideo-jokoz-kanpo.htm>

deek erabiltzen ez dutela jabetzen dira batzuk; erabili beharko luketeena baino gutxiago erabiltzen dutela aitortzen dute beste batzuek; edo, zuzenean, eskolan edo gelan baino ez dutela erabiltzen dio zenbaitek.

Euskara ez erabiltzeko arrazoiei buruz galdetuta, gazteek, helduon antzera, ez dute diagnostiko argirik, euren gertuko errealitateaz ari badira ere. Aipatzen diren argudioen artean, bi nagusi direla esan daiteke. Batetik, gazte batzuen euskararen ezagutza mailari erreparatzen zaio. Deigarria iruditu zaigu, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak izanda honelakoak erantzutea: «nire kuadrillan batzuek ez dakite euskara» edo «gazte batzuekin ezin dugu euskaraz egin, ez dakitelako». Bestetik, gazteek euskararen erabilerara eta familia lotzeko joera dute. Euren iritziz, euskaraz egiteko ohitura dutenak familia «euskaldunetakoak» edota euskaraz hitz egiten duten familietakoak dira.⁶ Amorebieta-Etxanon (Zornotza) egindako talde-elkarrizketa batean neska gazte honen hitzek argi adierazi dute ikuspuntu hori:

Eta gero, ba, lagunen artean nik igertzen doten diferentzia kuadrillan da, ba, dekogunek ama eta aita euskaldunek, ba, eiten dogu euskeraz, eta danak egiten doskue guri euskeraz baina dekienak guraso bat euskaldune eta bestea erdaldune, euren artien dana erderaz. Eta hori pasetan jaku gure kuadrillan, o sea, danak eiten doskue guri euskeraz, baina gero danon artean eiten dogu erderaz, orduen azkenaldien be eiten dogunek dana euskeraz gure artien, o sea, dekogunek ama-hizkuntza euskeraz, bueno ama-hizkuntza danok dekoguz ze ikesi dogu klase berean, baina dekogunek bi gurasoak euskaldunak, denpora guztien euskeraz baina danakaz erderaz. (26 urteko gaztea, Zornotza)

Gazteen euskararen erabileran gurasoen eragina azpimarratu dituzten antzeko adierazpen asko jaso izan dugu gure ikerketetan, baina gazteek argi zehaztu dute horrek ere ez duela bermatzen lagunartean euskaraz arituko direnik. Bestelako ikerketek ere ñabardura garrantzitsu hori berretsi dute:

⁶ Batzuetan «familia» aipatu ordez, «ama-hizkuntza» kontzeptua erabiltzen da etxetik euskara dakartenak izendatzeko. Horrekin lotuta, zenbait kasutan gazteen diskurtsoetan ama-hizkuntzaren ideologiaren zantzuak topatu ditugu. Ama-hizkuntzaren ideologiari buruz, ikus: Skutnabb-Kangas eta Phillipson 1989.

familian euskara jasotzeak lagundu egiten du baina ez du erabilera ziurtatzen. Ideia hau ilustratzeko hainbat datu dago. Adibidez, VI. Inkesta Soziolinguistikoari (2016) edota V. Mapa Soziolinguistikoari (Eusko Jaurlaritza 2014) erreparatzen badiegu, euskararen familia bidezko transmisioa % 25 ingurukoa dela esan behar dugu (betiere, euskara soilik eta euskara eta gaztelania batera transmititzen diren kasuak batuta). Baina aurretik aipatu den moduan, 2016ko Kale Neurketaren datuen arabera, gazteen (15-24 urte bitartekoak) erabilera % 12,3 da. Antzeko desoreka ikusi dugu beste ikerketa batzuen bidetik bildutako emaitzetan ere. Esate baterako, Arrue proiektuak jasotako datuen arabera, EAEko LH4ko ikasleen % 33,5ek jaso dute euskara edo euskara eta gaztelania etxean. Baina horietatik % 17k soilik erabiltzen dute bakarrik edo nagusiki hizkuntza hori familia giroan. DBH2ko ikasleen kasuan, % 35,4k dute euskara edota euskara eta gaztelania lehen hizkuntza, eta hortik, % 19k erabiltzen dute etxeko eremuan euskara nagusiki.

Gazteen euskararen erabilera eta erabilera eza, beraz, ertz ugari duen aferara da. Gainera, kezka hori ez da uste bezain berria. Euskarazko irakaskuntza egonkortzen hasi, euskararen legea ezarri (1982) eta handik urte batzuetara baziren martxan gazteak eta euskararen inguruko lehenengo ikerlanak. *BAT Soziolinguistika Aldizkariak* orain arte argitaratutako zenbakiei begiratu gero, konturatuko gara, ia hiru hamarkadan jardun dugula gazte euskaldunen inguruan hausnartzen.⁷ Ahalegin handiak egin dira, baliabideak jarri dira, esperientziak eta egitasmoak abiatu dira, baina horietatik ateratako ondorioek zalantza eta galdera asko utzi dituzte mahai gainean. 2016ko Kale Neurketak ekarritako datuek (Soziolinguistika Klusterra

⁷ Jada aldizkari horretako 7-8 zenbakian (1992ko irailean argitaratua) honelako izenburua duen artikulua topatu dugu: «Gazteak euskalduntzeko egitasmoa». Artikulu horretako egileek honelako kezka adierazi zuten: «Azterketa soziolinguistikoek diotenez gazteak dira, oro har, euskararen ezagutza mailaren eta erabileraren arteko desfaserik handiena agertzen dutenak, euskararekiko motibaziorik altuena adieraztearekin batera. Hitz bitan: hizkuntz leialtasun tasa ez dator bat ageriko kontzientzia mailarekin». Hurrengo helbide honetan eskuragarri dago: <http://www.soziolinguistika.org/node/597>. Urtebete beranduago (1993), gazteak protagonista izan ziren «Euskara, atzo eta gaur» izeneko ikerketan. Eusko Jaurlaritzak bultzatu zuen ikerketa mardul eta sakon hori, eta gazteen hizkuntza-argazki ezin osatuagoa eskaini zuen.

2017) erabileraren mantsotze prozesua erakutsi dute eta beste behin ere begirada gazteengan jarri da. Zer egin daiteke/dezakegu?⁸

Testu honetan ezin dugu galdera horri ematen zaizkion erantzunetan sakondu, ezta luzatzen ari diren proposamen guztiak balioetsi ere. Gure asmoa aspalditik kezka sortzen digun ideia batera bueltatzea da (Hernández, Olaso eta Martínez de Luna 2006). Ikertzaile gisa uste dugu «erabileraren auzia», hein batean, auzi epistemologikoa eta ontologikoa ere badela, eta horretan sakondu nahi dugu. Gure proposamenak hiru ideia edo hipotesi ardatz ditu eta, horien oinarrian hausnarketa teorikoak eta gazteekin egingdako ikerketetatik jasotakoak elkarrizketetan jarrita daude.

Lehenengo ideiak, erabilera ezaren izaerari edo ontologiari egiten dio erreferentzia. Erabilera urria datu objektibo gisa hartu behar dugu, baina, horren gaineko diagnostikoa eta egonezina, neurri handi batean, sozialki sortua eta eraikia dela uste dugu. Soziolinguistikak, beste diziplina batzuen laguntzarekin, «gaitzaren» nondik norakoa zehaztu du eta «hiztunak artatzeko» tratamenduak proposatu ditu eta proposatzen ditu egun ere.

Horrekin lotutako bigarren ideia bat dugu. Diagnostikoak zein tratamenduak helmuga jakina dute: gazteak. Arazoa gazteen erabilera urria da baina, zenbaitetan, gazteak eurak izaten dira zuzenean arazotzat hartuak. Baina, zein gazte? Zein gaztez ari gara? Nolako gazteak irudikatzen ditugu? Maiz, era orokorregian hitz egiteko joera gailentzen dela uste dugu. Esate baterako, sarritan, ez zaio erreparatzen egungo euskal hiztun gazteek duten profil nagusiari, ezta horrek beharko lituzkeen ñabardurei ere. Jakina da, egungo gazte euskaldun gehienak hiztun berriak direla (Ortega et al. 2013), baina orain dela oso gutxi arte, ez da behar bezala berezitasun horretan sakondu.

Eta horrek hirugarren ideia bat planteatzera garamatza. Belaunaldi berriak euskalduntzen hamaika ahalegin egin badira ere, belaunaldi horien jokabideak askotan aztertu badira ere, ikertzaileok zorrotzasun gutxirekin jokatu dugula iruditzen zaigu. Diagnostikoak eta tratamenduak osatzeko,

⁸ Horri begira, adibidez, azken urteotan egindako hainbat ikerketa eta esperientzia aurkezteko eta etorkizunari begira dauden erronkez hitz egiteko, Soziolinguistika Klusterrak «Gazte eta nerabeen hizkuntza errealitatea» izeneko jardunaldia antolatu zuen 2020ko urriaren 28an.

diseinatzeko edota ezartzeko garaian, autokritika gutxi erakutsi dugula uste dugu, ez hiztun gisa dugun jokaerarekiko, ez ikertzaile gisa dugun jarrerarekiko, ez heldu gisa dugun erantzukizunarekiko. Buruan bi kezka ditugulako diogu hori. Batetik, helduok hiztun gisa barneratuta dugun eredia eta kanpora proiektatzen dugun eredia dago. Bestetik, ikertzaile moduan aplikatzen dugun ikuspegia dago. Batean zein bestean, azken bost hamarkadotan sozializatutako hiztunen esperientziak, bizipenak, desirak, afektuak eta abar proiektatuta ikusi ditugu. Asko kostatu zaigu, aldiz, ondoren etorri diren belaunaldi berrien esperientziak, bizipenak, desirak edota afektuak oso bestelakoak direla jabetzea, besteak beste, ezagutu duten gizartea izugarri aldatu delako. Amildegia dago orduko eta egungo garaien artean. Eta, gure ustez, amildegi horrek badu bere isla maila teoriko, metodologiko eta epistemologikoan. Hortik dator, neurri batean, egungo euskal soziolinguistikan erantzunak bilatzeko sumatzen den zailtasuna, hala nola, gazteen erabilera ezaren aurrean.

Euskararen egoera eta euskal gizartearen egoera nabarmen aldatu dira azkenengo 40-50 urteotan. Bidean, euskararen ezagutzaren garapen eta zabalpen handia gertatu da. Garai hartan horren premia (larria) ikusi zuten eta horretarako baliabideak nahiz baldintzak jarri zituzten, gutxi edo asko, baina erronka egon zegoen, eta heldu zien. Ezagutzatik erabilerarako jauzia (ia) «automatikoa» izango zela pentsatu zuten, eta orain argi dago uste hori zuzena ez zela. Baina ezagutzaren zabalkundearen baliabideak jartzen ari ziren bitartean, erabilerarako baldintzak ere sortzen eta garatzen ari ote ziren?

Geure iritziz, ezagutza zabaltzeko estrategiek ez dute parekorik izan erabileraren esparruan. Eskola eta etxeko testuinguruak kenduta, gazteen erabilera sostengatuko duen hezurdura sendorik ez dago (Hernández 2020). Nerabeak eta gazteak mugitzen diren eremuetako euskararen egitura mengela da. Eta egitura diogunean: 1) ideiez eta ideologiez; 2) euskaraz blaitutako praktikez (esate baterako, euskaraz burutzeko aukera emango duen aisialdia); 3) eta gazteen garaira eta errealitatera egokitutako subjektibotasunaz edo subjektibotasunez ari gara.

Gazteen euskararen erabileraren inguruan hainbat korapilo ageri bada, korapilo horien jatorriaz hausnartzea komeni da, baina baita ikertzaileok

horien aurrean hartutako jarreraz ere. Bide kritiko eta autokritiko horri orain dela hamar bat urte ekin genion, aldizkari honetan bertan (Hernández 2010). Azkenengo bost urteotan konpromiso hori sendotu egin dugu, batetik, hizkuntza-antropologia (auto)kritikoa eginez. Bestetik, epistemologia erreflexiboa erabiliz: zer, nola eta nondik ikertzen dugun etengabe galde egiten dugun epistemologia, ikertzaile moduan dugun eragina eta ardura aitortzen duena. Urteotan pilatutako esperientzia aztertu nahi dugu testu honetan, eta bereziki, 2016-2018 urte bitartean *D ereduko kirola* izeneko ekintza-ikerketaren emaitzak. Horregatik, beste ezer baino lehen, proiektuaren nondik norakoak azalduko ditugu, modu laburrean bada ere.

2. *D ereduko kirola* egitasmoa: gazteekin ikasteko aukera

D ereduko kirola egitasmoa Eusko Jaurlaritzak (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua da. Soziolinguistika Klusterrak koordinatu eta bideratu zuen ekimena. Ikerketa eta esku-hartzea⁹ Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) zenbait ikerlarik¹⁰ garatu zuen. Azkenik, Urtxintxa Elkarteak eta Euskaltzaleen Topaguneak ere parte hartu zuten prozesu osoan hainbat zereginetan.

Egitasmoa abiatzerakoan, bi xede orokor zehaztu genituen. Batetik, begirale eta entrenatzaileen jarduna euskaraz izango zuen kirol-aisialdi antolatua modu esperimentalean arloko eragileekin eratzea, *D ereduko kirola* izena hartuko zuena. Bestetik, *D ereduko kirola* egitasmo horren eraketa-prozesuaren eta bertan parte hartuko zuten eragileen ahots ezberdinen gaineko ikerketa egitea: helduena (gurasoak, ikastetxeak, udalak, klubak...) eta, batez ere, haur eta gazteena (jardueretako partaideak zein entrenatzaile-

⁹ Egitasmoaren lehenengo urtean (2016-2017 ikasturtea) Euskaltzaleen Topaguneak hartu zuen bere gain esku-hartzea gauzatzeko ardura. Bigarren urtean, aldiz, ikerketak eta esku-hartzeak bat egin zuten eta EHUko kideek hartu zuten horiek kudeatzeko eta gauzatzeko lana. Halere, zeregin horretan Julene Maiaren laguntza –garai hartan Urtxintxa Elkarteko langilea– izan zuten.

¹⁰ Hauxek dira proiektuan parte hartu zuten EHUko ikerlariak: Jone M. Hernández (zuzendaria), Jaime Altuna, Iñigo Beitia, Maialen Altuna eta Iraitz Otaño.

leak). Hori dela eta, hiru urtean zehar (2016., 2017. eta 2018. urteak) kirol-klub haueekin egin genuen lana: Zaramaga Pilota Elkartea (esku-pilota), Padura Taldea (saskibaloia)¹¹ eta Real Sociedad (futbola). Egitasmoa abiatu zenean, hautatutako klubek euskara berreskuratzeko prozesuarekin nolabaiteko konpromisoa izatea lehenetsi genuen. Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde guztiak ordezkaturata egon zitezene nahi genuen. Era berean, kirol-praktika ezberdinak biltzen zituzten klubak izateak eta gizonezko zein emakumezko kirol-taldeak edukitzeak klub horiek garrantzia izan zuen aukeraketan. Hiru urteko prozesu hau bi fase ezberdinetan antolatu genuen eta fase bakoitzak planteamendu metodologiko ezberdina izan zuen.

2016-2017 ikasturtean kirol-taldeen hizkuntza-praktiken lehen hurbilketak egin genuen, entrenatzaileen jarduna, iritziak eta bizipenak erdigunean jarri. Lehen urte horretako esku-hartze atalean, entrenatzaileentzat presatutako euskararen erabilera areagotzeko formazio saio batzuk burutu genituen. Ikerketa-lanari dagokionez, testuinguru orokorra finkatzeko eta kirol-esparru bakoitzeko lehen datuak jasotzeko, zenbait elkarrizketa eta behaketa atondu genuen.

2017-2018 ikasturtean, ostera, ordura arte egindakoan sakondu genuen, bi aldagaitan oinarrituz: (1) kirolari nerabeen ahotsa lehen planoan jarri genuen; (2) esku-hartzea eta ikerketa-lana batera landu genituen. Bi gako horiexek definitu zuten, hein handi batean, ikerketari begira planteatutakoa. Ikuspegi antropologikoz garatutako ikerketa kualitatibo baten bidez, hiru kirol-taldetako (Zaramaga Pilota Elkartea, Padura Taldea eta Real Sociedad) kirolarien hizkuntza-praktikak eta diskurtsoak jaso genituen. Gazteok (kirolariak bereziki baina baita entrenatzaile gazteak ere) erdigunean

¹¹ Egitasmoa abiatzean, hau da 2016an, Padura Taldearen lekua Aixerrota Boleibol Taldeak (Getxo, Bizkaia) zuen. Lehenengo fasea amaituta Aixerrotak bertan behera utzi zuen bere parte-hartzea. Era berean, lehenengo urte horretan Zarautz Kirol Elkartea ere parte hartu zuen, baina fase hori amaitzean bere parte-hartzea egitasmoaren helburuetarako egokia ez zela pentsatu genuen, kirol-klub horretan euskararen erabilera ia erabatekoa baita. Hortaz, Zarautz bigarren fasean ez egotea erabaki genuen. Edonola ere, bi kirol-talde horiek adierazitako ikerketa honekiko prestutasuna eta eskuzabaltasuna nabarmendu nahi dugu.

jarri genituen, euren ahotsak, esperientziak, bizipenak, iritziak azaleratuz eta azpimarratuz.¹² Paraleloki, esku-hartzea bideratze aldera, talde-dinamika ezberdinak diseinatu genituen sekuentzia batean antolatuta. Guztira, kirol-talde bakoitzean, ordu erdiko zortzi saio egin genituen. Horietan hainbat dinamika proposatu genuen hausnarketak pizteko asmoz. Gehienetan hauxe izaten zen prozedura: (1) gazteak lauzpabost lagunez osatutako taldeetan elkartzen ziren guk proposatutako dinamika (ariketa) bat egiteko; (2) taldeotan gauzatutako dinamikaren emaitza partekatzen zuten talde handian, eta denon artean landu nahi genuen gaiari buruz hausnarketa egiten zuten; (3) eta azkenik, sortutako materiala eta ondorioak biltzen genituen.

Denera 44 laguni egin genien elkarrizketa: lehenengo urtean 4 entrenatzaile eta, bigarren urtean 37 neraberi (12-15 urte bitartekoak) eta 3 entrenatzaile. Gainera, prozesuan zehar 37 behaketa-saio burutu genituen: 14 lehendabiziko urtean eta 23 bigarrenengoan. Ikerketak bideratutako elkarrizketak osorik eta hitzez hitz transkribatuak izan ziren, eta behaketetan jasotakoak egunerokoetan deskribatu genituen. Esku-hartzearen kasuan, talde-dinamiketan zehar sortutako materiala bildu genuen. Bukaeran elkarrizketen transkripzio, ikerlarien egunerokoak eta gazteekin egindako dinamiken emaitzak sakonki aztertu genituen, amaierako txostena eta ondorioak idatzi ahal izateko.

Hiru urtean zehar sortutako txostenetan eta bestelako materialetan,¹³ hizkuntzaren eta kirol-esparruaren arteko harremana ulertzeko interesga-

¹² Esan behar da, egitasmo honen emaitzak talde-lanaren fruitua izan zirela. Ikerlari taldeaz gain, gurekin batera beste elkarte zein erakunde batzuk aritu ziren: Urtxintxa Elkartea; Soziolinguistika Klusterra; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Gipuzkoako Foru Aldundia eta Topagunea. Bestalde, Infotres enpresarekin lan polita egin genuen amaierako bideoa ekoizten. Azkenik, parte hartu zuten kirol-kluben inplikazioa ere azpimarratu nahiko genuke. Lehenengo ikasturtean Aixerrota Boleibol Taldea eta Zarautz Kirol Elkartea, eta gero, Padura, Zaramaga eta Real Sociedad kirol-taldeetako arduradunek erraztasun guztiak eskaini zizkiguten lan egokia garatu ahal izateko.

¹³ Proiektuaren inguruko oinarritzko informazioa zein prozesuan sortutako materialak (txostenaren laburpena eta Infotres enpresak ekoitzi zuen bideoa), interneteko hurrengo helbide honetan eskuragarri daude: <http://www.soziolinguistika.eus/Deredukokirola>

riak diren hainbat gako laburbildu dugu. Baina honako testu honetan aurrera joanda, euskararen erabilerari buruz ikerketan parte hartu duten gazteekin ikasi dugunaz ere hausnartu nahi dugu. Hau da, *D ereduko kirola* proiektuaren esperientzia aberats eta emankorraren ostean, hauxe galdetu nahi diogu geure buruari:¹⁴ Zer ikasi dugu proiektu honetan? Zer erakutsi digute bertan parte hartu zutenek? Zer diosku kirol-munduak gure egungo gizarteari buruz? Zer diosku euskararen egoerari buruz? Eta, bereziki, zer esan digute kirolari gazteek, hiztun kirolari gazteek, alegia?

Gauza asko esan, entzun, ikusi eta hauteman genuen. Guztien artean testu honetan hiru aspektu azpimarratuko ditugu. Batetik, arazotzat jotzen ditugun gazteok kokapen zehatza dute gure gizartean. Geroago aipatuko dugun moduan, kokapen hori, nagusiki, gizarteak eskaintakoa eta helduok ezarritakoa da. Kokapen horretatik hitz egiten digutela ulertu behar dugu. Horregatik, garrantzitsua da ohartzea –eta hona hemen bigarren irakaspena–, euren hitzak eta euren hizkuntza-hautuak ekintza eta jardun gisa. Esaten dutenaz edo esaten ez dutenaz haratago, edozein hizkuntza-jokaerak hizkuntza bat (edo bat baino gehiago aldi berean), edota hizkuntza batekiko jarrera, balioa eta abar «praktikan» jartzen ditu (Ahearn 2001). Hirugarrenez eta azkenik, aurretik esandakoaren ildo beretik, jabetu behar dugu (hizkuntza-) ekintza edo jardun horrek harreman zuzena duela gazte moduan garatzen dituzten praktikekin, gazte-kulturarekin, eta gazte bezala eratzten ari diren identitatearekin eta munduarekiko ikuspegiarekin. Nolanahi ere, gazteen, gazte-kulturen eta gizartearen artean dauden loturek eta interakzioek ez diote erreproduzio-ariketa mekanikoari men egiten. Tentsioak daude; gazteen agentzia¹⁵ kontzeptua ere tartean dago. Horri guztiari arreta eskaintzea merezi du, horren bidez adierazten dutenaz jabetzeko. Izan ere,

¹⁴ Galdera hauek egitasmoa amaitu bezain pronto sortu zitzaizkigun, eta horrelaxe jakinarazi genien ikerketa honek emandakoa zabalteko prestatu zen aurkezpen publikora bertaratutakoei. Aurkezpena Real Sociedad Kirol taldeak Zubietan (Gipuzkoa) dituen instalazioetan egin genuen, 2019ko martxoaren 27an.

¹⁵ «Agentzia» definitzea ez da eginkizun erraza. Guk Laura Ahearnek luzatu duen proposamenari jarraituko diogu: «Agency refers to the socioculturally mediated capacity to act» (Ahearn 2001: 112). Hau da, agentzia soziokulturalki baldintzatutako ekiteko gaitasuna da. Oinarritzko definizio horren gainean, testu honetan biltzea ezinezkoa zaigun zehaztapen asko egin beharko genuke,

sarritan agentzia horretan antzematen baitira komunitate, talde edo kolektibo baten sentimenduak, beharrak edota aldarrikapenak.

Laburbilduz, orain arteko esperientzia oinarri hartuta, gazteok hiztun gazte gisa ikertu eta ulertu behar ditugula uste dugu, esaten dutenari eta hori zein hizkuntzatan egiten dutenari baino, hizkuntzekin egiten dutenari erreparatuz. Hitz eta ekintza horien bidez euren (gazte-) mundua irudikatzen eta egiten dute; hori guztia, helduok diseinatutako eta sortutako gizarte eta kultura batekin elkarrizketan. Sakondu dezagun zertxobait gehiago, bada, gazteekin egin ditugun ikerketetan jasotako irakaspen horietan.

3. Euskal hiztun gazteak: kokapen bat kulturen eta gizartearen

Testuinguru eta kokapen zehatzetatik eraikitzen ditugu esanahiak hiztunok, parte hartzeko prozesu baten bidez, interakzio konplexu eta dinamiko baten bidez. Eta gurean, Euskal Herrian, bestelako testuinguruetan bezala, gazteek, gizartearen zein kulturen, kokapen zehatza dute. Kultura gehienetan adina da gizarte antolaketaren oinarria eta pertsona bakoitzaren kokapen soziala jaio den unetik pasatu den denboraren arabera da. Baina bizitzan zehazten diren etapak ez dira testuinguru guztietan berdinak, eta adin-tarte bakoitzari egozten zaizkion balore eta ezaugarriak ere ezberdinak dira (Hernández eta Altuna 2017).

Ados gaude Penelope Eckertek nerabezeroaz hitz egitean nabarmendu duenarekin: nerabezeroa eraikuntza ideologikoa da, generoa den moduan (Eckert 2003: 381). Bikain azaldu du Eckertek bere hipotesia:

Just as gender does not unfold naturally from biology, neither do life-stages such as childhood, adolescence, adulthood, or old age. Biology imposes some constraints, and culture takes off from there. Adolescence is an outgrowth of industrialization of the shift to institutionalized preparation for work, and the need to keep the young out of the workforce.

baina nabardura horietako bat bai ekarri nahi dugula: agentzia ez da norbanakoari soilik dagokion ekiteko gaitasuna, agentzia kolektiboari dagokiona ere bada.

While there are physiological changes that coincide to some extent with the entrance into adolescence, to attribute “adolescent behavior” to “ragging hormones” is to ignore the obvious: that above all, adolescence is an age –and generation– based location in the political economy. (Eckert 2003: 281-282)

Gazte izaerak, beraz, oinarri biologikoa izan dezake, adinarekin lotura zuzena duena, baina horri oinarri soziala duten elementuak gehitu behar zaizkio. Oinarri soziokultural hori dagoelako ez da gauza bera «gaztea» izatea Euskal Herrian, Irlandan edo Indian... Gainera, gaur «gazte izateak» ez du orain dela mende bat zuen esanahi bera. Aspalditik esaten ari garen moduan (Hernández 2010), egungo euskal gazteriaz hitz egiteko, ondo aztertu eta definitu beharko genuke, unean unekoa, zein nolako gazteriaz ari garen.

Era berean, gazte izaera hori (edo izaera horiek) gizarte osoak baldintzatzeko duela (edo dituela) ulertu behar dugu. Gazteak «egiten» dira, haur, heldu eta zaharren kategoriekin batera. Zentzu horretan ere, «gazteak» gizarte-kokapentzat jo ditzakegula diogu (García Canclini et al. 2012). Nestor García Canclini eta beste egile batzuek diotenekin bat eginez, esan dezakegu, neurri handi batean egungo (euskal) gazteria globalizazioak¹⁶ sortutako ondorioen erantzuna dela.

Beraz, gizarte-kokapen batean finkatutako pertsonak lirateke, oro har, gazteak, eta kokapen hori ideologikoki sustraituta eta oinarrituta dago. Beste argitalpen batean aipatu genuen moduan (Hernández eta Altuna 2017), modernitateak hain gustukoa duen sailkapen dikotomikoen jokoan, haurrak, nerabeak eta gazteak «ez-heldua» multzokoak kontsideratzen dira, helduen mundutik bananduak daudenak. Haurrak eta nerabeak «bukatu gabeko zerbait» gisa hartuak dira, pixkanaka betetzen joan behar duen on-

¹⁶ Globalizazioaz hitz egiten dugunean García Canclini antropologoak kontzeptu horren inguruan planteatu duenez ari gara. Cancliniaren ustez globalizazioa erabat definitzea zaila bada ere, egoera eta testuinguruaren arabera delako, XX. mendearen bigarren erdialdean garatu zen fenomeno da. Prozesu ekonomiko, finantzario, komunikazional eta migratzaileen bateratzeak ekarri zuen munduko ia gizarte guztien arteko mendekotasuna areagotzea eta nazioz gaindiko interkonexio-fluxu eta -egitura berriak sortzea da globalizazioa (García Canclini 2000: 24).

tzi hutsa bezala. Eurak «oraindik ez» taldekoak dira eta helduak «dagoeneko bai» taldekoak dira (Casas 2006: 40). David MacDougallek dioen bezala, helduentzat haurrak izaki bukatugabeak dira (*adult-in-waiting*), sozializazio prozesuan eraikitzen ari direnak (MacDougall 2005: 70).

Baina helduok ahaztu egiten dugu sozializazioa etengabeko prozesua dela, bizitza osoan irauten duena, eta gizakiok hasiera-hasieratik izaki sozial lez funtzionatzen dugula. Haurtzaroaren eta nerabezaroaren trantsizio izaera horrek, beraz, gizarte-mailaketa eta botere-harremanak ezkututzen ditu; eta mailaketa sozial horren barnean, gorputz umoak kokapen eta aukera berezituak eskuratzen ditu (Fernández 2016). Botere-harreman horiek izendatzeko Claudio Duarte «helduzentrismo» hitza erabili du (Duarte 2012, in Fernández 2016). Hizkuntzak oso garbi adierazten digu haurtzaroaren kontzepzio hori: adingabeak deitzen diegu 18 urte bete ez dituztenei.

Ikuspegi horiek, gainera, badituzte bestelako ondorio maltzurak ere; izan ere –Eckertek ohartarazten gaituen moduan–, zenbaitetan prozesua izan beharko lukeena, helburu bilakatzen da. Nerabeak, esaterako, «nerabeentzako diren» tokietan zein erakundeetan bakartuak izaten direnez,¹⁷ «*people become not more adult, but more adolescent*» (Eckert 2003: 382).

Haurrei eta nerabeei ematen zaien etorkizuneko izakiaren funtzio horrek, bestalde, arduraz betetzen du euren zama, «*carrying on their shoulders all the hopes of the adult world*» (MacDougall 2005: 67). Hau da, agentziarik onartzen ez bazaie ere, gizarte hobearen etorkizuneko esperantzak, bete beharreko zereginak bihurtzen zaizkie.¹⁸ Halaxe egiten da, adibidez, euskararen

¹⁷ Eckerten iritiz, Estatu Batuetako kasuan, nerabezaroa eskolak definitzen du erabat. Bere ustez, Ipar Amerikako *High School* delakoa ez da hezkuntza-erakundea soilik, gaztetxoek bizitza osoa (lagunartea, aisialdia, kirol- zein kultura-jarduna) antolatzen duen erakundea baizik (Eckert 2003: 383). Alde nabarmenak egon badaitezke ere, pentsa liteke, gurean antzeko zerbait gertatzen ari dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren etaparekin (DBH), izan ere, etapa horretarako igarobidea nerabezaroaren hasierarekin lotzearen ustea gero eta zabalduagoa dago sozialki.

¹⁸ Egun interesgarria da, nerabe eta gazte batzuen artean, klima aldaketa dela eta, zabaltzen ari den diskurtsua. Izan ere, euren kritikak artez (eta askotan modu oso kritikoa eta zorrotzean) helduei zuzentzen ari zaizkie. Helduak errudun gisa ageri dira eta euren jokaera gogor kritikatzan dute.

biziberritze prozesuan. Eurekin egoera hobetuko dela espero da, gainontzeko adin tartekoen ardura nolabait arinduz (MacDougall 1998).

Baina haiengandik espero denaz gainera, gazteek euren arauak dituzte (baita hizkuntza-arauak ere). Gazte-kulturaren baitan eraikitzen diren arauak eta belaunaldiz belaunaldi aldatzen direnak. Ez daude inon ere idatzita baina, gauzatzen dituzten ekintzen eta jardueren bitartez «irakur» daitezke. Mary Bucholtzek gogorarazi digun moduan, beti egongo da hizkuntzaren erabilera sinbolikoa, identitatea «performatzeko» ezinbesteko tresna delako (Bucholtz 2000). Horregatik, praktika horiek jasotzea eta aztertzea funtsezkoa iruditzen zaigu. Bucholtzek berak bultzatzen ditu ikertzaileak, gazteen praktikak eta, batez ere, gazteen hizkuntza-praktikak aztertzeraz: «*as a set of stylistic resources that together produce a multitude of age-based identities*» (Bucholtz 2000: 283).

Horregatik, azken urteotako gure ikerketa guztietan, gazteek egunerokotasunean gauzatzen dituzten praktiketatik abiatzeko hautua egin dugu. Zer egiten dute (gure) gazteek? Eta zerk eragiten die gazteei gazte bilakatzea? Praktika horien bidez gazteak «ezagutu» ditzakegula uste dugu. Hau da, praktika horietatik abiatzea gazteen hizkuntza-praktikak aztertzeko eta hizkuntzen inguruko balioak, hautuak eta ideologiak ulertzeko bide egokienerako bat dela deritzogu.

4. Gazteak gazte bilakatzen dituzten praktikak

D ereduko kirola egitasmoan kirolari nerabeak izan ziren protagonistak. Zehazki, 12tik 15 urtera bitarteko gazteak ziren, eta aurretik egindako beste ikerketetako gazteen ezaugarrien antzekoak zituztela esan behar dugu.¹⁹

¹⁹ Kasu honetan, geuk garatutako ikerketei erreferentzia egin nahi diegu. Hona hemen zein diren: (1) *Gu Gazteok, 12-14 urteko gazteen hizkuntza egunerokotasunera hurbiltzeko ikerketa parte-hartzaile* (2016). Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren Aholku Batzordeko Gazteriaren Batzorde atal bereziaren eskariz egindakoa. (2) *Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabearoan* (2015). (3) *Euskara generoaren ispluan barrera. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean* (2016). Ikerketa horiek guztiek izaera kualitatiboa zuten eta, datuen bilketan hainbat teknika erabili genuen: behaketak, elkarriketak eta talde-dinamiken bidezko talde-hausnarketak.

Euren adinekoen izaerak zein praktikak deskribatzeko zenbait elementu azpimarratu zuten. Hasteko, gaztetasuna ezaugarri positiboekin lotu zuten: gazteak politikak, modernoak, adiskideak, umoretsuak, irribarretsuak edota kirolariak direla nabarmendu zuten. Edertasuna gaztetasunaren ezaugarri aipagarriena lez azaleratu zen, eta gorputzaren garrantzia agerikoa zen: kirola, argazkiak, itxura fisikoa... Sexualitateari ere maiz egin zioten erreferentzia.

Jardueretan arreta jarrita, esan daiteke, gazte izaera definitzeko garaian bi elementu direla nagusi. Batetik, harremanak, bereziki adin berekoen arteko harremanak; bestetik, aisialdiaren garrantzia.

Ia bi hamarkada igaro dira gazteen aisialdiari buruzko ikerlanak burutzen hasi ginenetik (Berrio-Otxoa, Martínez eta Hernández 2000 eta 2003) eta orduko helburu garrantzitsuenetariko bat, gazteentzat aisialdia zer den definitzea izan zen. Zaila izan zaigun arren, horrelako definizioa osatu genuen:

Ezbairik gabe, gure gizartean denbora libre garrantzi handiko denbora da gazteentzat. Izan ere, ikasketekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora izanik, aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrian bati erantzuteko: norberaren subjektibotasuna garatzea eta modu librean adieraztea. Horrela, eskoletatik eta gainontzeko eginbeharretatik kanpo gelditzen zaien denbora libre bezala definituta aisialdia, aisialdiko denbora horretan bere harremanak, zaletasunak eta bete-nahiak lantzeko aukera dute. Seguru asko, aisialdi momentu horiek euren barneko nahi, balio eta desirak adierazteko aukera bezala ikusten dituzte; aukera gauzatua edo frustratua izango dena, inguruan topatzen edo sortzen dituzten harreman, jarduera eta eskaintzen arabera. (Berrio-Otxoa, Martínez eta Hernández 2003: 7)

Bi ikerketa horietan sakon murgildu ginen gazteak aisialdian aritzen diren esparru eta espaziotan (parkeak, plazak, gaztelekuak, lonjak edo lokalak...). Hori egin eta gero, aisialdia gazte-identitatea (gazte izatea zer den) ulertzeko ezinbesteko elementua dela ondorioztatu genuen (Hernández, 2010). Beste hitz batzuk erabiliz, gazteek, neurri handi batean, aisialdiaren bitartez eraikitzen dituzte euren bizimodua, izaera, diskurtsoa..., euren gazte izateko era. Hau da, aisialdirako guneak identitate eraketarako agertokiak bilakatzen dira.

Ikerketan parte hartu duten gazteek, aisialdiko jardueri buruz hitz egi-terakoan, kirola eta festa²⁰ maiz aipatu zituzten. Kirola gazteen ezaugarri gisa modu generikoan deskribatu zuten. Kirola, beraz, garrantzi handiko esparrua da. Zalantzarik gabe, eskolaz kanpoko jardueren artean nabarmenena da, bai praktikan, bai gazteen zaletasun aldetik ere.

D ereduko kirola egitasmoaren erdigunean dauden subjektuak kirolariak ziren, eta, beraz, ulergarria da gazte hauentzat kirola, jarduera oso garrantzitsua izatea. Baina, nerabeekin egin ditugun beste ikerketetan, argiro agertu zaigu adin horretako gazte askok kirol-praktikaren bat egiten duela, eta futbola dela presentzia handiena duen kirola.²¹ Halere, ñabardura bat egin beharko genuke: kirol-praktikan mutil eta nesken artean joera ezberdinak daude. Ia mutil guztiek futbola praktikatzan dute eta batzuek, horretaz gain, beste kirolen bat ere egiten dute. Mutilek futbolari garrantzi handia ematen diote eta euren bizitzaren erdigunea dela agertu dute: entrenatzeaz eta partidak jokatzaz gain, futbol profesionalaren aztarrenak ondo dakizkitez, mugikorretan partiden emaitzak jasotzen dituzte, aisialdi-tarteetan (aske edo ez-antolatua) baloiarekin jolasten dira eta mutilen arteko hizketaldien gai nagusia futbola izan ohi da. Nesken artean, ordea, kirola egitea ohikoa bada ere, ez da hain praktika orokortua, eta kirol-motari dagokionez aniztasun handiagoa dago.

Padurako saskibaloia taldeko neskek, adibidez, saskibaloia inguruan ematen dute denbora librekeri gehiena, baina beste kirol-praktikekiko zaletasuna ere aipatu digute:

²⁰ Kasu askotan, batez ere nerabeak direnean, «festa» aipatzean herriko jaiak, euskararen inguruko jaiak edota kontzertuak aditzera eman nahi dituzte. Horiexek dira adina dela medio, festa-giroan murgiltzeko izaten dituzten aukerak.

²¹ Gure ikerketetan ageri izan diren datuak bat datoz Eusko Jaurlaritzaren *Euskadiko Gazteak 2016* ikerketa kuantitatiboaren emaitzekin: gazteen artean gehien nabarmentzen den kirol-espezialitatea futbola eta areto-futbola da (% 20k diote horixe dela gehien egiten duten kirola) (Eusko Jaurlaritza 2017: 149). Ikerketa horretan ere nabari da neska eta mutilen arteko ezberdintasunak handiak direla futbolaren praktikari dagokionez: «Kasu honetan ere desberdintasun nabarmenak daude gizon eta emakume gazteen artean. Futbola (edo areto-futbola) jarduera, nagusiki maskulinoa da. Mutilen % 34k adierazi dute sarrien egiten duten kirola futbola da, eta nesken % 4k baino ez dute aipatu futbola jarduera nagusitzat (ibid., 150)».

Nik bueno, nahi dudanean, batzutan joaten naiz e... hori e... *a nadar, joe!*, igeri egitera! Beste batzuetan ba pixkat korrika, joaten naiz bizikletaz... Igual Pagasarrira-eta, eta bai kirol asko egiten dut, jeneralen. Ez dut bakarrik saskibaloia... Bueno, saskibaloira joaten naiz, baina joaten naiz astearte eta asteazkenetan, baina beste kirol batzuetara ez noa *a unos días exactos, cuando pueda*. (Gazte kirolaria, neska, Padura)

Realeko gaztetezko futbola da gehien interesatzen zaien jardura eta aisialdi tartetan futbolearen aritzen dira (lagunekin jolasten eta partidak telebistan edo zuzenean ikusten). Zaramagako gazteek frontoian elkartzeko ohitura dute baina tarteka futbolearen ere jarduten dutela jaso genuen. Asteburuetan etxetik kanpora lagunekin atera eta orduak ematen dituztela kontatu ziguten, eta mutilen artean, bideo-jokoetan aritzea nahiko zabaldua dago.

Kirol-talde horietan nekeza da eskolaz kanpoko arlo kultural edo artistikoarekin zerikusia duen jarduerarik egiten duenik topatzea. Gazteekin burutu ditugun beste ikerketetan ere ez dugu kultura jarduerekin lotutako praktika gehiegi jaso. Batzuek musikarekin, antzerkiarekin eta dantzarekin zerikusia duten ekimenetan parte hartzen badute ere, nerabe horien kontakizunetan ez daude hain presente.²²

Era berean, gazteen aisialdiaz ari garela, esan behar da, eskolari, familiari, aisialdi-taldeei edota bestelako aisialdi antolatuari (adibidez, «gazteleku» bezalako azpiegiturak) ez diete kasik erreferentziarik egin. Arreta eman digun kontua, eskolaz kanpoko ingeles ikasketen zabalkundea da. Elkarriketatutako ia gazte guztiek aipatu ziguten, kirolarekin batera eskolaz kanpo egiten duten jardura, ingeles eskoletara joatea dela.

Zerrendatutako jardueraz gain, adin horretan aisialdia gauzatzeko une eta gune nagusia kalea da: aisialdi ez-formalari dagozkion jarduerak egiteko erabiltzen duten espazioa, hartan ere. Espazio horiek adin bereko gazteekin

²² Gutxitan agertzeko arrazoiak, jardura indibidualak izatea, edota «nesken gauza» gisa identifikatutako jardueratzat hartzea izan litezke. Azkenengo kasuan, mutilek –kultura-eremuan aritzen direnek– ez aitorzeko joera izango dute eta, neskei gehiago kostatuko zaie horretaz hitz egitea, besteak beste, kirolak bereganatzen duelako protagonismoa taldekako elkarriketatetan.

soilik partekatzen dituzte baina, lagun-talde edo kuadrilla ezberdinek toki berean elkartzeko joera dute. Gazteen deskribapenetan espazio horien deserosotasuna eta, zenbaitetan, asperdura ere ageri dira. «Egon» aditza askotan errepikatu zuten eta «egote» horretan honelakoak aipatu zituzten: hitz egin, argazkiak atera, mugikorrarekin aritu, gozokiak jan... Hala ere, mugimenduzko jarduera batzuk ere azaldu dira: baloi-jolasak, musika entzunez dantza egitea... Bestalde, jakina denez, telefono mugikorrek erroak ondo sustraituta dituzte gazte horien «kaleko» aisialdian ere. Ikerketan zehar, telefonoek presentzia handia izan zuten eta, argi dago adin horretako talde-dinamikan parte hartzeko, telefono mugikorra beharrezkotzat jotzen dutela.

Telefono mugikorrek aipatzean ezinbestekoa da, gazteen praktikan eta jardunetan protagonismoa duen bigarren elementua mahaigaineratzea: harremanak. Aisialdiarekin batera, harremanak dira gazte horiek gazte «egiten» duten elementu nagusia. Oraingo honetan arlo horretan sakonduko ez badugu ere, harremanen gaia azpimarratu nahi dugu bereziki. Aurretik esan dugun moduan, hizkuntza-antropologiaren ikuspegitik, hitz egitea ekintza soziala da (Ahearn 2001). Hitzak egitate sozialak dira eta harreman konplexuen sareetan murgiltzen dira (Rosaldo 1982). Gazteentzat, bereziki, hitz egitea ekintza kolektiboa da; euren bizitza sozialaren oinarritzko gunea da (Goodwin 2004). Baina, ezin dugu ahaztu, hitz egiteak gizarte ordena jakin batean –bere logika- eta botere-dinamikekin– norbere burua kokatzea dakarrela (Rosaldo 1982). Horregatik, gazteen arteko harremanen mundua arakatzea interesgarria iruditzen zaigu, harreman horien ezaugarriak eta dinamikak hobeto ezagutzeko eta ulertzeko, are gehiago, globalizazioak eta eremu digitalak eraikitako harremanen ereduak zabaltzen eta garatzen ari diren garai honetan. Egungo gazteak sarean bizi dira eta sarea dute euren «lanerako» (ikasketetan, esate baterako) eta harremanetarako oinarria. Besteekiko lotura horrek nerabe eta gazteen jardunean eragina du. Lehen auzoan, eskolan, lanean edota musika mugimendu baten barruan ehuntzen ziren sareak, orain sare birtualen «munduan» sortu eta elikatzen dira. Horrek harremanen nolakotasunean edo izaeran, harreman horiek irudikatze-ko garaian, eragina du. Dena edo ia dena iragankorra da, behin-behinekoa (García Canclini et al. 2012).

Aurreko pasarteetan gazteak gazte izaten «laguntzen» duten zenbait elementu jarri dugu azalean. Elementu horiek praktika gisa irudikatu behar ditugu, horiek praktikan jartzen (*performatzen*) dituztenean bilakatzen dira gazte eta «gazte» agertu. Eta praktika horien guztien artean, gazte-identitatea *performatzeko* aisialdia da gakoa. Baina, zein papera du hizkuntzak, euskarak gure kasuan, aisialdiari lotutako praktika horietan?

5. Hitzak ekintza direnean: hiztun gazteak, ekintzaileak

Aurretik esanda dago: *D ereduko kirola* izeneko proiektuan hizkuntza-praktiken azterketa lehenetsi genuen; hiztun gazteen praktikak jomuga nagusia genituen. Azaldu den moduan, gazte horiek hizkuntzarekin «egiten» dutena behatu genuen, eta, ondoren, egiten dutena edo egiten ez dutenaren inguruan, eurekin hitz egin genuen.

Hori dela eta, esan daiteke «praktiken azterketaren» tradizioan kokatzen dugula geure burua. Paradigma hau 1960-1970 hamarkadan azaleratu zen –batez ere hizkuntza-antropologiaren eremuan– Ferdinand de Saussure eta Noam Chomsky bezalako hizkuntzalariak garatzen ari ziren hizkuntzaren gaineko ikuspegia kontrajarriz. Laura M. Ahearnek horrela azaldu du momentu hura (Ahearn 2001: 110):

Whereas most linguists follow de Saussure (1986) and Chomsky (1965, 1986) in studying language as a set of formal structures set apart from everyday interactions (“langue” rather than “parole,” and “competence” rather than “performance”), most linguistic anthropologists regard language as a form of social action, a cultural resource, and a set of sociocultural practices. (Schieffelin 1990: 16)

Pertsonok hitzekin «gauzak» egiten ditugula azpimarratu du Ahearnek. Horrek norabide bikoitza du: batetik, hitzen eta, oro har, hizkuntzaren bidez errealitatea eraikitzen dugu; bestetik, (geure) hitzak eta hizkuntza errealitate horren isla dira, hiztunok gizarte-egituretan zein harremanetan murgilduta baikaude (Ahearn 2001).

Era horretan, ekintza edo jarduera sozialtzat hartu behar dugu hizkuntza (*form of social action*) eta, testuingurua baldintzatzeko gaitasuna edukitzeaz gain, testuinguruaren eragina ere jasotzen du halabeharrez. Harremanek edota botere-dinamikek lotura zuzena dute hizkuntzarekin eta, horregatik hizkuntza guztiek, edota hitz egiteko modu guztiek ez dute (sozialki) pisu edo prestigio bera. Ikuspegi honetatik, jakina, hizkuntzak ez du «bakarrik» informazioa transmititzen edo garraiatzen: «(...) *linguistic anthropologists view language as a vehicle that people themselves are continually in the process of building together*» (Ahearn 2001: 111). Hizkuntzek eta hitzek mataza hariltzen dute, mundua osatzen duten era guztietako elementuekin, bizidunak zein bizigabeak izan horiek.

Mataza horren baitan, beraz, gazteek aisialdian dituzten hizkuntza-praktikei begira aritu gara gu, betiere arreta aisialdiaren eremuan jarrita, gazteen identitatea osatzeko ezinbestekoa den gunean, alegia. Alde horretatik, *D ereduko kirola* ikerketak nabarmendu duen ideia bat honako hau da: gazteen eta, batez ere, nerabeen identitate-osaketan –hots, gazte-identitatean– garrantzi handikoa den aisialdi esparru horretan euskararen presentzia urria da eta horren adierazle nagusienetarikoa bat kirola da. Beste ikerketa batzuetan jaso dugunaren arabera (Eusko Jaurlaritza 2016), antzeko egoera gertatzen da nerabeek dituzten kultura-ekoizpenen kontsumoarekin. Nerabeek kontsumitzen dituzten kultura-produktu gehienak gaztelaniaz (nagusiki) edo ingelesez egindakoak dira. Telebista dela-eta jasotako hitz hauek horren adibide dira:

Neska: Telebista erderaz ikusten degu dena.

Mutila: Nik euskeraz ikusten nun txikitan telebista ta, zen hori Doraemon, Lazkao Txiki ta holakoak baino...

Neska: Ta oain ze ikusiko dezu?

Mutila: ... handitan hasten bazera ikusten: futbola gazteleraz, «*Mujeres y hombres*» hori gazteleraz, «*La que se avecina*» gazteleraz... Azkenian ikusten dezu ta ikasten dezu.

Neska: Gazteleraz dena.

(Gazteak, neska eta mutila, Lezo).

Zinema ere gaztelaniazkoa ikusten dute eta, azken bi urteotan beste ikerketa batzuetan jasotzen ari garena kontuan hartuta, plataforma digitalen bidezko serieak ere euskaraz ez diren hizkuntzetan egindakoak ikusten dituzte. Agerikoa da hori, nerabeek aipatzen dituzten telesailen erdal izenburretan. Hona hemen, adibide gisa, elkarrizketa batean batutakoa:

Neska 1: Bueno orain ari naiz ikusten serie bat: «*Mujeres deseperadas*».

Neska 2: Nik... ez dakit. E..., «*Elite*», «*Pequeñas Mentirosas*», «*Mujeres deseperadas*» bi aldiz dut ikusia. Orain, «*Modern Family*», «*La Casa de Papel*», «*Big Little Lies*»...

(Gazteak, neskek, Oiartzun).

Musikari buruz hitz egitean, ingelesezko eta gaztelaniazko musika aipatu dute nagusiki. Hau da, nerabe horiek entzuten duten musika bi hizkuntza horietan egindakoa entzuten dute. Lagunarteko aisialdiko harremanetan ere gaztelania ohikoagoa da euskara baino. Gure ikerketan parte hartu zuten Gasteizko eta Arrigorriagako nerabeen artean, lagunartean gaztelaniaz aritzen zirela jaso genuen, baita, Realeko hainbat jokalariren artean ere. Talde horretako beste batzuek lagunarteko harreman gehienak euskaraz zituztela esan zuten. Elkarrizketetan holaxe azaldu ziguten, lagunarteko hizkuntza-praktiken egunerokotasuna eta salbuespena zein diren:

Ba, normalean, nabaritzen da..., zeinek hitz egiten duen nabariago euskeraz, baina normalean, beti aritzen gara gaztelera. (Gazte kirolaria, mutila, Zaramaga)

Bueno, ni batzutan gelditzen naiz lagun batekin aparte, ze kuadrilla osoa ez da geratu edo edozer gauza eta berarekin gehienetan izaten da... gehienetan egiten dut euskeraz. Mobiletik eta gero geratzen garenean. Baina lagun talde handiagoa bada gaztelaniaz. (Gazte kirolaria, neska, Padura)

Gu euskeraz ere bai, baino igual, batzutan, esaldi bat edo horrela ateratzen zaigu erderaz, erderaz, erderaz eta hasten gera erderaz. (Gazte kirolaria, mutila, Real Sociedad)

Kirol-praktiken esparruan ere antzeko egoera topatu dugu, eta gazteei kirol-espezialitate ezberdinak hizkuntzekin lotzeko eskatu izan genienean,

argi erakutsi zuten futbola eta saskibaloia, adibidez, ez zutela euskararekin lotzen. Bi kirol horiek gaztelaniarekin uztartu zituzten eta zenbaitetan ingelesarekin ere bai. Ohikoagoa da, ostera, esku-pilota euskararekin batzea. nolabait euskal tradizioarekin lotutako kiroltzat jo zutelako:

Pilota lotzen dugu euskararekin. Bueno kirol euskalduna da eta gero ere, ba partidotan eta aurkariak, entrenatzaileekin eta gehien, bai egia da agian entrenatzaileek esaten dietela zerbait erderaz eta baina bestela dena euskeraz da. (Gazte kirolaria, mutila, Zaramaga)

Dena den, azpimarratu behar da, ikerketan parte hartu zuten hiru taldeek nolabaiteko lana garatzen dutela (egun ere) euskararen biziberritzearen alde. Gazteen aipamenetan horixe antzeman genien, eta horren adibidea da, esaterako, Padurako nesken elkarrizketetan jaso genuena: eskolarekin batera, entrenamendua zuten euskara gehien erabiltzen zuten gunea.

Azaldutakoaren ondorioz, esan behar dugu, euskarak, egun, zailtasunak dituela gazteen identitatearekin bat egiteko, besteak beste, euskararekin loturiko «kulturak» bat egiten ez duelako (euskal) gazteriak garatutako kulturarekin (gazte-kultura, alegia). Hori diogu, zeren eta, gazteek gazte gisa definitzeko erabiltzen duten aldagai nagusiaren eremuan –hau da, aisialdian eta aisialdiarekin lotutako praktketan–, euskara gazteen bizimoduan, praktketan, diskurtsoetan, nahietan... txertatzen joateko funtsezkoak diren elementuak ez baitira garatu.

Bestalde, haur eta nerabeen sozializazioan etxea eta eskola garrantzi handiko guneak dira, eta azken hamarkadotan izan den euskararen biziberritze prozesuan, bi gune horiek zeresan handia izan dute. Euskalduntze-prozesuan eskolak izan du paper garrantzitsuena, eta horrek ondorio batzuk ekarri ditu. Batetik, hiztun berrien kopurua handitzea. Bestetik, euskara eskolarekin identifikatutako hizkuntza izatea. Hain zuzen ere, bigarren aldagai hori oso argi azaldu da ikertutako gazteen artean. Eskola euskaraz egiteko/ikasteko/aritzeko espazio gisa identifikatzen dute, baina askotan horrek, ikasgelatik kanpoko nolabait «derrigortasun» horretatik at uztearen nahia ere ekartzen du. Hurrengo aipu honekin halaxe ematen du:

Gazte kirolaria 1: Igual esaten badizute hitz egin euskaraz, bai hala bai, ez zait gustatzen porque nik hitz egin al dut erderaz edo euskaraz. Esatea bai hala bai hitz egin behar dudala euskaraz eskolaz kanpo ba ez zait gustatzen.

Gazte kirolaria 2: Niri ez dit molestutzen ze ez zait kostatzen hitz egitea euskaraz. Baina, ez dakit, ematea agintea hitz egiteko eskolatik kanpo ba ez zait gustatzen asko.

(Gazte kirolariak, neskak, Padura)

Etxearen eta euskararen arteko lotura, aldiz, anitzagoa dela jaso dugu. Nerabe horien gurasoen artean hizkuntza-egoera ezberdinak daudenez, etxean hizkuntza-sozializazio prozesu ezberdinak bizi dituzte. Dena den, haurtzaroarekin konparatuz, nerabezaroan eta gaztaroan, bai eskola, bai etxea, garrantzia galtzen hasten dira aisialdian garatzen dituzten beste praktiken aldean, eta horrek isla argia du hizkuntza-sozializazioan.

Euskara etxean eta eskolan sustraitu da bereziki. Bata zein bestea helduok eraikitako erakundeak dira. Nerabezaroa edo gaztaroa iritsi bitartean hortxe kokatuko dute haur hiztunek bere burua. Baina une batetik aurrera, gazte-identitatea garatzeko asmoz –eta helduak izateko bidea harturik– praktika, pentsamendu, erreferente... berrien bila abiatzen dira. Ordura arteko helduek eraiki, osatu eta antolatutako mundu horretatik ihes egin nahi dute. Hizkuntzari dagokionez, ihesaldi hori askotan isiltasunaren bidez adierazten dute, batzuek euskarari egiten dioten ukazio horren bidez. Zer esaten ari dira jarrera horiekin? Nondik hitz egiten digute?

Gure hipotesia hauxe da: erabileran eragina duten faktore soziolinguistikoek gain,²³ gazte-kulturekin lotutako ideologiek, praktikek eta subjektibotasunek erabateko garrantzia dute euskal hiztun gazteen errealitatean zein jardunetan. Horregatik, planteatzen diren esku-hartzeek zein gogoetek

²³ Gazteen hizkuntza-erabilerari buruz egin den lan osatuenetarikoa bat, *Soziolinguistika Klusterrak, Urtxintxa Eskolak eta Topagunea* euskara elkarten federazioak elkarlanean egindakoa da. Hainbat aditu, aritu eta gazterekin, «Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa» burutu zen. Azterketa hura egin zenetik hona, hartzaile mota ezberdinen artean aurkeztua eta bide askotatik zabaldua izan da. Baina horrez gain, beste emaitza bat ere eman du azterketa hark: «Erabileraren GPSa» argitalpena (2011).

ideologia, praktika eta subjektibotasun horiexetan izan beharko lukete oinarria. Edo horiexek ikertu eta ezagutu beharko lituzkete, behintzat.

6. Ondorioak: ikerlariontzako erronka

Hasteko, erreferentzia egin nahi diogu testu honetan ikergai nagusia izan denari: gazteen aisialdiari. Euskararen ikuspegitik, hizkuntzaren ikuspegitik, aisialdia ihesbide bilakatu dela esan behar dugu. Hori euskal testuinguruarekin konparagarriak diren beste herrialde batzuetan ere gertatzen ari da, Galesen, kasu (Selleck 2016).

Charlotte Selleckek egindako lan etnografikoak, eskolan oinarritutako ideologiak eta praktikek gazteengan eragindako ondorea argi erakutsi digu, aisialdiaren eremuan antzeman daitekeena:

I draw on the Youth-Club as a site that captures a component of young people's leisure time and leisure space, in order to explore the informal contexts and processes whereby young people can shape and manage their identities. It is such a space, away from parents and teachers, that significant aspects of young people's personal and social identities are affirmed, contested, rehearsed and re-worked. (Selleck 2016: 554)

Eta Selleckek berak azpimarratu duenez, espazio horiexetan, eskolaz kanpoko espazio «aske» horiexetan, hartan ere, galesa arriskuan jartzen ari da: «(...) *outside in the "real" world the Welsh language is threatened on a daily basis*» (Selleck, 2016).

Eskolakoa eta eskolatik kanpoko; Selleckek berak nabarmendu du, bi espazio horien artean sortutako hutsunea: «(...) *a gulf between the increasing number of young people receiving their education through the medium of Welsh, and the levels of Welsh language use outside school*» (Selleck 2016: 561). Eta, beraz, etorkizunari begira horixe dela erronka nagusienetarikoa galesa bezalako hizkuntza gutxiagotu batentzat. Horrekin lotuta, azken urteotan hizkuntza-politikak hartutako hainbat erabakiren gainean zalantzak agertu ditu; izan ere, Galesen nagusitu den joera gazteen aisialdian esku-hartze zuzenagoa eta zorrotzagoa bultzatzea izan da. Horrek, Sellecken ustez, hain-

bat galdera erantzuteke utzi du: lortuko ote du bide horrek hizkuntza (galesa) «bizi» bat? Zein jarrera sorraraziko ote ditu gazteengan? Asaldatuko ote dira gazteak eta politika horien kontra joko al dute? Eta euren aisialdirako bultzatutakoa ez den beste hizkuntza bat (kasu honetan ingelesa) aukeratzeko dutenak, baztertuak izango ote dira?

Selleckek planteatutako galderak baliagarriak eta aplikagarriak izan daitezkeelakoan gaude, euskal soziolinguistikaren eremuan. Gorago ikusi dugun bezala, gure lurraldean ere hizkuntzari dagokionez eskolaren eta aisialdiaren arteko ezberdintasuna nabarmena da eta gazteek hala adierazten digute. Horregatik, egoera horren aurrean Selleckek duen jarrera biziki interesgarria iruditzen zaigu. Soziolinguistika kritikoaren alde eginez, egungo egoeraren konplexutasuna azpimarratu eta gero, «boterea» gazte-belaunaldien eskuetan uztearen aldekoa agertu da: «(...) *if the future of the Welsh language is ultimately down to younger generations, then power and control needs to be delivered to them*» (ibid.).

Ildo beretik doa Mary Bucholtz, Dolores Ines Casillas, Jin Cook Lee egiten duten proposamena:

Rather than seeking to “empower” such young people, who are already powerful agents of social change in their own right, we aim to work in accompaniment with them and their teachers, families, and communities in order to achieve the goals of sociolinguistic justice: the valorization and legitimation of all ways of using language, access to both locally meaningful and institutional powerful varieties, the recognition of all language users as linguistic experts, and an understanding of the material and ideological bases of linguistic inequality. (Bucholtz, Casillas eta Lee 2016: 39)

Puntu honetan, ondorioetan azpimarratu nahi dugun bigarren elementua aipatzera gatoz: gazteen eta ikertzaileen zein (hizkuntza-) eragileen arteko harremanak.

Ausartuko ginateke esatera, harreman horiek eragile helduok bultzatuta direla, helduon ikuspegitik eta beharretatik. Horrek guztiz baldintzatu ditu bi alderdi horien arteko elkarrekintza eta lankidetzak posibleak.

Gazteek nahiko paper pasiboa izan dute.

Ikerlariontzat, adibidez, gazteak ikerketa objektu erosoan izan dira eta dira. Normalean eskura izaten ditugu gazteak; denbora eta gogoan adierazten ohi dituzte parte hartzeko. Ildo horretatik doa Joan Pujolarrek egindako hausnarketa (2008). Egileak gazteek hizkuntza-plangintzaren ikuspegitik sortzen duten ikusmira (eta hainbatetan egonezina) izan du sarritan mintzagai. Bere ustez bi dira fenomeno horren arrazoi nagusiak (Pujolar 2008). Alde batetik, gazteak, hau da hiztunen belaunaldi berriak, etorkizunerako haziak kontsideratzen dira normalean –MacDougallek azpimarratu duen moduan– eta bere parte-hartzea ezinbestekoa da hizkuntza gutxituen berreskurapen prozesuetan. Beste aldetik, Pujolarrek dio, gazteak beste populazio-talde batzuk baino eskuragarriagoak dira.

Arrazoi horiek direla eta, gazteen inguruko ikerketen inflazioaren arriskuan eror gaitezkeela uste dugu. Etengabe hitz egin daiteke gazteek euskararekiko dituzten harremanez, jarreraz, iritziz..., bukaeran antzeko ondorioak nabarmentzeko. Joera horri aurre egin behar diogula uste dugu, nolabaiteko jauzi kualitatiboa eraginez. Jauzi horrek maila epistemologikoan, teorikoan eta metodologikoan egin behar dugulakoan gaude. Belaunaldi berriei zuzentzen dizkiegun «galderak» berrikusi behar ditugu, «ezkutatzen» dituzten kezkek eta beldurrak identifikatuz eta aitortuz. Garaiko egoerari dagozkion teoriak eta kontzeptuak barneratu eta aplikatu behar ditugu –hau da, garaian garaikoa–, daukagun errealitatea kontuan hartuz. Eta honekin guztiarekin batera, planteamendu metodologikoak berrikusi behar ditugu, bertan gazteei protagonismoa emanez.

Haur, nerabe eta gazteak egoera soziolinguistikoaren parte diren neurrian, aukera izan beharko lukete bertan parte hartzeko. Ildo horretatik joanda, bereziki iradokitzailea iruditzen zaigu Richard Henne-Ochoa eta Richard Baumanek egindako proposamena:

(...) showing children and youth as active agents in the construction of language ideologies and conceptions of sociolinguistic organization (...) we demonstrate how members of a speech community experience language shift and revitalization in a specific situational context. (Henne-Ochoa eta Bauman 2015: 129)

Bide beretik doa Barbra A. Meekek egindako proposamena, berriz ere umeak eta gazteak erdigunean kokatzera gonbidatuz:

(...) *children are portrayed as passive observers rather than active participants in a shifting sociolinguistic landscape. Instead (...) we should ask, "how are novices, especially children and youth, interpreting or conceptualizing the sociolinguistic conditions.* (Meek 2007, in Henne-Ochoa eta Bauman 2015: 130)

Hiru hamarkada igaro dira Euskadiko Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza-ereduak (A, B, D eta G) martxan jarri zirenetik eta, oso gutxi dakigu eredu horien pean haziak eta heziak izan diren gazteen esperientzietan eta iritzietan. Ez dugu zalantzarik euskararen kasuan, ezinbestekoa dela aitortzea, euskalduntze-prozesuak emandako fruituak. Azpimagarrien artean, ziur aski, eskolak sortutako hiztun berrien kopurua²⁴ dugu. Baina datu horiek errealitate oso ezberdinak eta anitzak ezkututzen dituzte, hiztunen profilek nabarmen erakusten duten moduan. Estatistiken eta ehunekoien atzean bestelako datuak topa daitezke, kualitatiboagoak direnak, hiztunen subjektibotasunetan sakontzen ahalbidetzen dutenak, hain zuzen ere. Eta hor hamaikatxo istorio aurki daiteke. Zorionez gero eta gehiago dira, testigantza horiek jaso nahian esperientzia horietara hurbiltzen ari diren ikerlariak. Balio handiko lanak dira, gazteak euskal hiztun bilakatzeko bidean izandako bizipenen berri ematen digutelako eta, ukazio, ezintasun edota erresistentzia horien atzean dagoen zenbait gako ematen dutelako.

D ereduko kirola egitasmoan *colaborative approach* (Lamarre 2013: 13) edo «hurbilpen kolaboratibo»-aren alde egin dugu eta pozik gaude lortutako emaitzekin, besteak beste prozesuak gazteengan ez ezik, ikerlariongan ere eragin nabarmena izan duelako. Ikerketa-esparrua partekatu dugu eta neurri batean ikerlari gisa dugun agentzia ere bai.

Québeceko testuinguruan gazteekin lanean dabilen Patricia Lamarre ikerlariak antzeko kezka agertu ditu. Hauxe proposatu digu egile horrek:

²⁴ EAEko 16-24 urteko euskaldunen erdia baino gehiago hiztun berriak direla diote gaian adituak diren Ane Ortega, Esti Amorrortu, Jone Goirigolzarri, Jacqueline Urla eta Belen Uranga (2013: 152).

gazteen parte-hartzea (baita ikerketa-prozesuetan eurotan ere) dinamizatzeari, egunerokotasunarekin lotutako praktikan (*linguistic repertoires in the day-to-day*) erreparatzea, eta, batez ere, malgutasunez jokatzeari. Izan ere, gaur egungo munduan, eta gazteek ari garenean batik bat, ia ezinezkoa da hizkuntza, hizkuntza-identitateak zein hizkuntza-praktikak, galdetegiak betetzeko eskaintzen dizkiguten «kaxatxoetan» sartzea.

Monica Hellerren ideia hartuta (Heller 2007, in Lamarre 2013: 12), Lamarrek 1960-1970 hamarkadako «betaurrekoak» aldatzera gonbidatu gaitu. Gure (gaurko) munduan, hizkuntzak ez dira sistema itxiak, komunitate trinko bati guztiz atxikita daudenak. Hizkuntzak gaur egungo munduan kokatuta daude, eta hizkuntza-identitateak beste ezer baino lehen malguak eta aldakorak dira. Azken finean, ezin dugu ahaztu hauek sozialki eraikiak direla. Are gehiago, –Lamarrek dio– aintzat hartu behar dugu, hizkuntzaren nazioaren eta estatuaren arteko lotura denbora eta espazio jakin (eta historiko) bati lotutako eredu dela.

Lamarrek, ikuspegi eta eredu teorikoak ez ezik, planteamendu metodologikoak ere eraldatzeko eskatu du. Bere hitzak bereziki adierazgarriak dira:

A good deal of the massive corpus of research on language in Québec rests on the questions “which language do you use most often at home, at work, at play, in public interactions?” with findings often invoked in political agendas and used to foment public alarm about the future of the French language. By seeing things through a competition and essentially assimilationist model, what has gone unnoticed and virtually unstudied is how linguistic resources are really being used in the everyday, as well as how the language dynamics and politics of identity in Québec are changing. (Lamarre 2013: 12)

Testu honetan txertatutako gazteen ahotsek erakusten digute, euskaraz hitz egin ala egin ez, gaitasun bikaina eduki ala eduki ez, hizkuntza-adituak direla eta esperientzia horietan oinarritutako jakintzak aitortza merezi duela. Eta aitortzarekin batera, laguntza; hiztun bakoitzak bere bidea egiteko. Gazteekin egin beharreko lanak zeregin nagusi bat izan beharko lukeela erakutsi digu ikerkuntzan egindako ibilbideak: hiztun gazteei euron iritziz euskal hiztuna zer den definitzen eta gauzatzen laguntzea. Gainera, zer-no-

lako hiztunak izan nahiko luketen zehaztea eta xede horretara iristeko laguntza eskaintzea litzateke beste helburu bat gehiago.

D ereduko kirola egitasmoaren barruan garatutako ikerketa eta esku-harztearen prozesua amaitzeko, hizkuntza-ohiturak aldatzeko erronka egin genien gure kirolari gazteei. Horiek baietz esan eta bikain burutu zuten. Orain, gu helduok, gai izango al gara, egoera soziolinguistikoak luzatu digun erronka berri hori erantzuteko?

Bibliografia

AHEARN, L. M. (2001). «Language and Agency», *Annual Review of Anthropology* 30 (2001): 109-137.

ALTUNA, J. (2015). «Euskara pasilloetan galduta. Praktiken aldaketak eta hizkuntz mudantzak nerabezaroan», *BAT* 97 (2015): 39-65.

——— (2017). «Genero identitatearen hizkuntza jokoa. Hurbiltze etnografikoa nerabeen hizkuntza-praktiketara» *BAT* 104 (2017): 139-157.

BERRIO-OTXOA, K., MARTÍNEZ, Z. eta HERNÁNDEZ, J. M. (2000). *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

——— (2003). *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*. Soziologiako Euskal Koadernoak, 13. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzia.

BUCHOLTZ, M. (2000). «Language and Youth Culture», *American Speech* 75, 3 (2000): 280-283.

BUCHOLTZ, M., CASILLAS, D. I. eta LEE, J. S. (2016). «Beyond Empowerment: Accompaniment and Sociolinguistic Justice in a Youth Research Program», in *Sociolinguistic Research. Application and impact*. London and New York: Routledge: 25-42.

CASAS, F. (2006). «Infancia y representaciones sociales», *Política y sociedad* 43, 1 (2006): 27-42.

ECKERT, P. (2003). «Language and Gender in Adolescence», in *The Handbook of Language and Gender*. Oxford: Blackwell: 381-400.

EUSKAL KULTURAREN BATZARRA (1992). «Gazteen mundua euskalduntzeko egitasmoa», *BAT* 7/8 (1992): 159-175.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) (2016). *Gu gazteok*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila) (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila) (2017). *Euskadiko Gazteak 2016*, *Gazteak Bilduma* 13 (2017). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKO JAURLARITZA (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila), NAFARROAKO GOBERNUA (Euskarabidea) eta EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA / OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE (2019). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Nagusia.

FERNÁNDEZ, I. (2016). *Nerabezarako maitasun bizipenen etnografia: Harremenen antolaketa, gorputz-lana eta heteroaraua Bilboko gaztetxoaren artean*. (Doktorego-tesia, UPV/EHU). Argitaratu gabea.

GARCÍA CANCLINI, N. (2000). «La globalización: ¿productora de culturas híbridas», *Actas del III congreso latinoamericano de la Asociación Internacional para el Estudio de la Música Popular*. Bogota: IASPM-AL: 23-27.

GARCÍA CANCLINI, N., CRUCES, F. eta URTEAGA, M. (2012). *Jóvenes, culturas urbanas y redes digitales*. Madrid: Ariel.

GOODWIN, CH. (2004). «A Competent Speaker Who Can't Speak: The Social Life of Aphasia», *Journal of Linguistic Anthropology* 14, 2 (2004): 151-170.

GOUGHLAN, E. (2021). «Accommodation or rejection? Teenagers' experiences of tensions between traditional and new speakers of Irish», *Journal of Sociolinguistic* 25, 1 (2021): 1-18.

HENNE-OCHOA, R. eta BAUMAN, R. (2015). «Who Is Responsible for Saving the Language? Performing Generation in the Face of Language Shift», *Linguistic Anthropology* 25, 2 (2015): 128-150.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M., MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA, I. eta OLASO GARITANO, O. (2006). «Theoretical, Social and Political Discourses on the Basque Language», in *The Case of the Basque: Past, Present and Future*,

M.^a J. Azurmendi eta I. Martínez de Luna argitaratzaileak. Andoain: Soziolinguistika Klusterra: 103-116.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. (2010). «Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur», *Euskara* 55, 2 (2010): 579-607.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. eta ALTUNA RAMÍREZ, J. (2016). *D ereduko kirola. 2016ko ikerketaren txostena*. Argitaratu gabea.

——— (2017). «Gazteak euskararen jolastokian», in *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU): 53-70.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M., ALTUNA RAMÍREZ, J. eta BEITIA, I. (2018). *D ereduko kirola. Ikerketaren txostena 2017-2018*. Argitaratu gabea.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. eta ALTUNA RAMÍREZ, J. (2020). *Euskara Kirolkide. Lankeita teoriko-kontzeptuala*. Argitaratu gabea.

LAMARRE, P (2013). «Catching “Montreal on the Move” and Challenging the Discourse of Unilingualism in Quebec», *Anthropologica* 55 (2013): 1-16.

MACDOUGALL, D. (1998). *Transcultural cinema*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press.

——— (2005). «Films of childhood», in *Film, ethnography, and the senses. The corporeal image*. Princeton, New Jersey: Princeton University Press: 67-93.

ORTEGA, A., AMORRORTU, E., GOIRIGOLZARRI, J., URLA, J. eta URANGA, B. (2013). «Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: nolako euskalduna naiz?», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 87/88 (2013): 151-170.

PUJOLAR, J. (2008). «Els joves, les llengües i les identitats». *Noves SL. Revista de Sociolingüística*, Hivern 2008. Barcelona: Generalitat de Catalunya.

Sarean: <http://www.gencat.cat/llengua/noves>.

ROSALDO, M. Z. (1982). «The Things We Do with Words: Ilongot Speech Acts and Speech Act Theory in Philosophy», *Language in Society* 11, 2 (1982): 203-237.

SELLECK, CH. (2016). «Re-negotiating ideologies of bilingualism on the margins of education», *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 37, 6 (2016): 551-563.

SKUTNABB-KANGAS, T. eta PHILLIPSON, R. (1989). «Mother Tongue: The Theoretical and Sociopolitical Construction of a Concept», in *Status and Function of Languages and Language Varieties*. Berlin: De Gruyter: 450-475.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (Euskara biziberritzeko ikergunea), UR-TXINTXA ESKOLA eta TOPAGUNEA (2011). *Erabileraren GPSa*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (Euskara biziberritzeko ikergunea) (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. *Euskal Herria*, 2016, O. Altuna Zumeta zuzendaria. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Sarean: http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf.

——— (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia*, J. M. Hernández García zuzendaria. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Sarean: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/gazteak-euskararen-eszenatokian-erabileraren-auzia/>.